

# Markinako Karmeldarrak

*En ocasiones se da el caso de que un determinado Instituto Religioso aparezca particularmente ligado a la historia de una localidad. Tal ha sucedido con Loiola y Asís, o con Berriz y las mercedarias de la M. Maturana. De forma parecida, en Markina aparecen estrechamente asociados la Villa y su Convento carmelitano.*

Karmeldarrei buruz zerbait esan nuen aurreko batean (*Arantzazu*, 2007ko abuztuari); orain, zehazkiago haien Markinako komentuaz eman nahi dut albisteren bat edo beste.

Ikusi genuenez, karmeldarrak XIII. mendeko hasiera-hasieratik datoz, baina XVI. mendean Sta. Teresa Avilakoak biziberritu zituenetik euskal herritartu dira karmeldarrak indar handiagoz. Horrela, 1620az geroztik Nafarroako San Joakin Probintzia eratu zuten, barruti horretan euskal Hegoaldea osorik, eta ia bakarrik, hartzen zutela.

## **Markinan egoitza izanberritzen**

Fraide hauei ere Esklaustrazioak ez zien onik egin, komentuak itxita, noraezean han eta hemen sakabanatu baitziren; hala ere, izanberritzeari laster heldu zioten. Horretarako, Markinan 1691z geroztik izan zuten komentutik ekin zioten lanari (1868), ez beharbada unerik onenean (urte hartakoa baita "Iraultza Loriatsua" deitutako hura, komentuak berehala berriro itxiaziko zituen).

Markinako komentua izanberritzeko erabakia eta ahalegina benetan ondorio handikoak gertatuko ziren, karmeldarrak Euskal Herri osoan birlandatzeko ez ezik Espainian ere Ordena erlijioso horri bideak ireki eta, azkenean, beste

hainbat herrialdetan ere emango zituen emaitzengatik.

Une horretan eman zitzaion hasiera San Joakin zeritzan Probintzia karmeldarra berriro eratzeari, eta jakina da, Probintzia horrek hartu zuen, hein handi batean, karmeldarren munduko garapen berriaren gidari-zeregina. Horregatik guztiagatik da hain garrantzizkoa Markinako komentu hau.

Dena den, Markina eta Probintzia erlijiosoa oraingoan ez ziren eraman nahi izan Ordena-ko Espainiako Kongregazioan, baizik eta fraide esklaustratu euskaldunek atzerrian ezagutu ahal izan zuten Italiako Kongregazio karmeldarraren bidetik, Ordena osoa batasun bakarrean eraman ez eta betiere Aita Santuaren eskutik zuzenean zegoela. Hain zuzen, gobernu-antolaraeren hau izan zen hasierako eztabaidagai bat.

## **Karmeldar sakabanatuak biltzen**

Karmeldarren izanberritze-lanetan badaude hiruzpalau izen aipatu beharrekoak. Hasteko, Aita Domingo San Joserena (†1870), nafar garestarra bera, Lazkaon karmeldar egina, esklaustrozitik Frantziako karmeldarren izanberritzaila, eta 1865ean Ordena osoko Nagusi Jenera-



la. Ordenatik behar zen aginte-babesa honek eman zion Markinako asmoari.

Komentu berria irekitzeko eguneroko joan-etorriak Frantzian zegoen beste euskaldun batek hartu zituen bere kontura, Manuel Santa Teresarena lazkaotarrak (†1889). Hau saiatu zen, Espainian ageri ziren bestelako asmoak saihesten, eta batez ere, Kandido Gaytan Villafrancako Kondearekin (arrasatearra bera), Madril-en lotu behar ziren harremanak lotzen, Ministerioetan ez ezik Erreginarenean ere, Komentua Kubarako Misiolari-Etxe bezala irekiko baitzen (Frantziskotarrek 1859an Bermeon egin zutenaren antzera); beraz, Itsasoz Haraindiko Ministerioaren babes-agindupean.

Lehen protagonista hauen ondoan ez da ahaztu behar Frantzian euskal karmeldar eskulatratu aski zegoela, Ordenari han bere oinarri berriak ematen, baina baita hemen, gurean, zer egin ote zitekeen begira. 1858an, hango Akitanianako Probintzian 130 fraidetatik 43 ziren Penintsulakoak, gehienak euskaldunak; pentsa zitekeen, bada, Hegoaldean aukerarik sortu orduko prest izango zela hainbat lagun Markinara etortzeko, eta, egiaz, Markinako lehenengo fraide guztiak Frantziatik etorriak izan ziren (9).

Fraidearte honen garapenean garrantzi handia izan zuen Komentua heziketa-etxe bihurtzeak, bertara bildu baitziren fraidegaitarako zetozenak, bai nobizio-aldia egiteko, eta berdin Filo-sofia nahiz Teologia ikasteko, 1868tik bertatik hasita. Horregatik, handik aurrera Euskal Herriko karmeldarrek beti beren baitan eraman zuten ikasketa-urteetako Markinaren oroitzapena.

Gerrateak eta gerra-ostekoak estualdi latzak ekarri zituzten (1937-1940), lehenengo Komentua koartel bihurtu zelako eta gero bertako fraideei ere "garbiketa politikoa" ezarri zitzaielako, batzuk preso zeramatatzela eta zenbait erbesterratu zituztelako. Segur aski, karmeldarrak izan ziren Euskal Herriko Ordena erlijiosoaren artean gerra-ondo zailenetakoa izan zutenak, eta Markina ez zen izan horretan salbuespena.

### **Markina, izen handien sortetxe**

Euskal Herriko erlijioso-etxe gutxi izan da Markinako honek bezainbat erlijioso handi eman dituen sorleku (beharbada, Martzillako augustin-dar errekoletkoena izan daiteke beste bat); hau da, elizhierarkian lekurik jasoenak ezagututakoak. Euskal herritarrak aipatuko ditut hemen. Bi Artzepezpiku eta lau Gotzain euskaldun izan dira Markinako Etxe honetan bizi eta ikasitakoak: Aita Arginzoniz eta Abasolo zornotzarrak, Zubizarreta markinarra, Agirrebeitia berriztarra, Irizar ormaiztegiarra, eta San Migel Ertze lekeitiarra, eta kantabriar bat, Aita Gómez Fraude.

Azkenik, Markinatik irten dira karmeldarren Ordena osoko lau Nagusi Jeneral, hiru euskaldun eta burgostar bat: Aita Ezekiel Bilbao zornotzarra (1907-19113); *Aita Migel Batiz* markinarra (1967-1973), *Aita Luis Arostegi* (2002...) bizkaitar gatikarra, eta Aita Julian Gómez (1947-1954). Ordenaren barruko eraikuntza orokorrean Markinak izandako lekuaz beste batean esango dut zerbait.

**Joseba Intxausti**

*Galderak eta oharra:* 610273580